

2011 eko DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO MEZUA

Anne Teresa De Keersmaeker

Gizaki egiten gaituenaren ospakizuna da dantza nire aburuz. Dantzaten dugunean natural erabiltzen ditugu gure gorputzaren mekanismoak, poza, tristezia zein bihotza ikutzen diguten zentzumen guztiak adierazteko. Jendeak bizitzako une garrantzitsuenak ospatzeko dantzaten du, eta gure gorputzek giza esperientzia guztien memoriaren pisua daramate. Bakarka edo taldean dantza dezakegu.

Amankomunean duguna edo bata bestearengandik bereizten gaituena dantzatu ahal dugu. Dantzatzea pentsatzeko modu bat da niretzat. Dantzaren bitartez ideiarik abstraktuena irudika dezakegu eta ikusezina edo izendaezina zaiguna.

Dantza pertsonen arteko lotura da, zeru-lurren arteko zubia. Mundua daramagu gure gorputzetan. Azken finean, dantza-instant bakoitza funtzio zabalago baten parte da, amaigabeko koreografia baten parte.